

Elizondotik Iruñerrira jauzia

Xaloa Telebistak lehen urratsak 1997an eman zituen Elizondon. Inguruko eskualdeetara iristen da seinalea. Urte erdi da telebistak Iruñerrira jauzi egin duela. Zazpi langile ari dira Iruñerriko lantaldean.

| IRUÑE ASTITZ LARUNBE |

IRUÑERRIAK euskara hutsezko toki-ko telebista du otsailaren 2az geroztik. Xaloa Telebistak 2013an Iruñerrian Lurreko Telebista Digital bidez emititzeko lizentzia lortu zuen. Urtebete geroago, 2014ko azaroan, crowdfunding kanpaina martxan jarri zuten, besteak beste errepikagailuek izan zituzten kostuei aurre egiteko. Berriozarko kulturegunean dute egoitza, eta emititzen hasi zirenetik bost hilabete bete behar dituzten honetan, egunero hiru orduko ekoizpen propioa egiteko bidean dira.

1997an Elizondon duten egoitzatik emititzen hasi zirenetik Baztan, Bidasoa, Malerreka, Urdazubi eta Zugarramurdi eskualdeetako herritarrengandik gertu izan dira. 2013an Nafarroa osoan eta Iruñerrian emititzeko lizentzia lortu bazuten ere, inbertsioari aurre egin

ezin ziotenez, Nafarroa osoan emititzeari uko egin zioten. Ostera, Iruñerrian emititzen hasteko proiektua garatzen hasi ziren.

53.760 euro hasteko

Xaloa TB ez da telebista handi bat; poliki-poliki hasi eta Iruñerriko herritarrei zerbitzua eskainiko dien telebista baizik. 2014ko azaroan, Tokikomekin (tokiko komunikabideen bateragunea) batera crowdfunding kanpaina martxan jarri zuten Karena plataformaren bidez.

Proiektuak Udalbiltza, Topagunea, AEK eta beste hainbat erakunderen babesas jaso eta 53.760 euro bildu zituen, herritarren, erakunde eta herri mugimenduetako taldeen ekarpenari esker. Horrela, besteak beste, emititzen hasteko beharrezkoak ziren errepikagailuak eskuratu zituzten. Errepikagailu

nagusia Elomendin daukate, eta horri esker, Xaloak ez ezik Hamaika Telebistak eta Nafar Telebistak ere emititzeko aukera dute. Ezkaba menditik ere seinalea emititzen dute.

Euskaratik eta euskaraz, Iruñerria euskalduntzeko tresna

Bost hilabeteko ibilbidean Iruñerriko elkarte eta erakundeek parte hartzeko aukera izan dute. Horixe da Xaloa Telebistaren helburuetako bat: elkarte eta erakundeek haien asmoak, gogoetak eta kaleratu nahi duten informazioa emateko euren esku izanen duten tresna izatea, alegia. Horrek lana eskatzen duela argi dute Xaloa Telebistako kideek, horregatik informazio hori zabaltzeko modua oso ongi finkatzea dute erronketako bat.

Xaloa Telebistaren lan egiteko modua elkarlana da eta hurbiltzen



XXVII. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria 2015

- Sari nagusia:
Julen Iriando
- Kazetari Berria saria:
Samara Velte
- Aipamen bereziak:
Iñigo Astiz
Mikel Ibargoen





XALOA TELEBISTAK UTZIA

den edozein erakundek, elkartek eta herritarrek harrera ona izanen du esku artean duen proiektua aitzina ateratzeko orduan. Elkarlanean aritzea du xede Xaloak, dituzten tresnak eta baliabideak, euskaratik eta euskaraz, gizartearen zerbitzura jarritz.

Xaloe Telebista Iruñerria osoko etxeetan ikusi beharko balitz ere, Ezkaba menditik ateratzen den seinalearen indarrarekin arazoak izaten ari dira. LTDko 38. kanalean sintonizatu behar dute herritarrek Xaloe ikusi ahal izateko. Irailerako seinalea indartu eta Iruñerria osoan ikusteko aukera egonen da.

Ekoizpen propioa helburu

Otsailaren 2an hasi baziren ere emititzen, 2014ko abenduan proba saioak egin zituzten Xaloe Telebis-

taren bestelako saioak emitituz. Urtarrilean albistegia eguneroko eginen hasi ziren eta gerora bi magazin jarri zituzten abian: bata goizean eta bertzea arratsaldekoa. Programa berezituak emititzen hasi dira duela gutxi. Egingo dituzten bost saio berezituak protagonista haurrak, kultura eta kirola izanen dira. Dagoeneko hiru orduko ekoizpen propioa egiten dute eta irailerako eguneroko emisioa egonkortzea dute helburu.

Lantalde gaztea

Berriozarko kulturagunean du egoitza Xaloe Telebistak. Oraindik estudioak egokitzen ari dira, grabazio plato egokiak izan daitezten. Zazpi kazetari eta teknikariz osatutako taldea ari da lanean. Eider Madina eta Josu Santesteban albistegia zuzen-

Ezkerretik eskuinera, zutik: Josu Santesteban, Xabier Sobrino, Larraitz Amadotz eta Joseba Igarabide. Eserita, Maialen Epaltza, Eider Madina, Iñaki Atxa eta Haritz Sanz.

tzeaz eta edukia sortzeaz ardura-tzen dira. Maialen Epaltza izan da orain gutxi arte goizeko magazineko gidaria. Larraitz Amadotz da arratsaldeko magazineko gidaria. Arratsaldero gai zehatz bat ardatz hartzen dute: astelehenetan kirola, astearteetan udal kontuak, asteazketan kultura, ostegunetan ekonomia eta politika, eta ostiraletan aisialdia. Xabier Sobrino aipatutako saio berezituak egiten ari da. Horien inguruan, editatzen eta kontrol mahaian, Iñaki Atxa eta Haritz Sanz dabilta. ■

Babeslea: IVAP

 HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA  euskad.eus	 Enplegu Publikoa Lan-ekoizpenaren harpidetza Lan-geltzak (Eusko Jaurlaritzak) Beste administrazioetako lan-ekoizpenak Hautaketak Oraikidetzak, 2014-15eko Enplegu Publikoko eskaintza Ertzaintzaren XXV. Promozioa	 Prestakuntza Administrazio orokorra Toki Administrazioak Foru aldundiak Berezikiak hizkuntza prestakuntza EVEIU Prestakuntza jardueren homologazio prozedura	 Euskara Euskoaren ikuskerak Hizkuntza eskaintzak Berezikiak hizkuntza prestakuntza Argitalpenak Euskoaren lan-erregimen baliabideak EZO - Hizkuntza Zehaztu Ofiziala
--	---	---	---